



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Iruñeko autobus geltokia (1934an zabaldu zuten) zaharkitua gelditu da hiriak dituen beharretarako, eta, autobusen joan-etorria handia izan arren, agintariek nahiko utzia dute.

## Iruñeko autobus geltoki zaharrari agur esateko ordua

**AUTOBUS GELTOKI BERRIA.** 2003ko udan hasiko dituzte geltoki berria eraikitze lanak, eta 1934an eraikitako geltoki zaharrak erretiroa hartuko du, bazuen beharra eta

I. Arrizurieta | IRUÑEA

**B**azuen garaia Iruñeko autobus geltoki zaharrak erretiroa hartzeko. 1934an eraikitako geltokiak, izan ere, 68 urte ditu; eta iruindar guztiek ikusten zioten neke aurpegia. Azkenean etorri da, bada, eguna; izan ere, 2003ko udan hasiko dituzte, Iruñean, autobus geltoki berria eraikitze lanak. Egun Yanguas eta Miranda aparkalekua dagoen tokian eraikiko dute.

Nafarroako Gobernuak zein Iruñeko Udaleko ordezkariak azkenean onartu dute Iruñeak egun duen autobus geltokia ez dela egokia eta azpiegitura

«duina» edukitzeko tenorea iritsi dela. Izan ere, 68 urterekin, zaharkitua eta utzia dago. Yolanda Barcina alkateak eman ditu geltoki zaharrari lekukoa hartuko dion geltoki berriaren inguruko berriak. Autobus geltoki «moderno» izango dela dio, eta «puntako zerbitzuak» eskainiko dizkiela bai iruindarrei eta baita bisitan joaten diren guztiei ere.

Autobus geltoki berria eraikitzeak hiriaren erdigunea «bultzatzeko eta bizkortzeko» ere balioko duela dio alkateak. Izan ere, inguruan izanen dira El Corte Inglés merkataritza gunea, Baluarte, eta Nafarroako Parlamentu berria.

### YOLANDA BARCINA

Iruñeko alkatea

«Autobus geltoki moderno eta puntako zerbitzuak eskainiko dituen izanen du Iruñeak»

Gisa berean, Jose Ignacio Palacios Herrilan kontseilariak azpiegituraren garrantzia azpimarratu du. «Estazio berriak erabat zaharkitua dagoen egungoa ordezkatu du. Aurrerantzean, jarraitu beharreko eredu bilakatea nahi nuke».

### Lanak, sanferminen ondoren

Azpiegitura berriaren lehiaketa 2003. urtearen hasieran egingen da. Lanak, baina, geroago hasiko dira; nola ez, sanferminen ostean. Beraz, Yanguas eta Miranda aparkalekuan jartzen diren barrakak toki berean geldituko dira heldu den urteko jaietan, baina, 2004rako, beste leku bat aurkituko die Udalak.

Kokalekua Ziudadelaren ondoan dagoelako aukeratu dute. Autobusak gelditzeko dartsena nagusi bat edukiko du; baita ibilgailuok uzteko aparkalekua ere.

Argitzeko dago, egun autobus geltokia dagoen orubearekin zer gertatuko den. Izan ere, geltokia ez ezik, 56 etxebizitza daude, eta horietatik 47 alokairuan daude edo Iruñeko Udalak berak erabiltzen ditu.

### 21 milioi eurotik gorako aurrekontua

Gobernuak zein Udalak esan dute geltokia eraikitzea 21 milioi euro pasatxo kostako dela. Eraikuntza lanak hasi baino lehen, erakundeok proiektua bien artean ordaintzeko hitzarmena sinatuko dute. Behin hori eginga, aurkezten dituzten proposamenek zehaztuko dute erakundeok diru gehiago edo gutxiago jarri behar duten.

Hasiera batean, behintzat, lannen %60 Gobernuak finantzatuko ditu, eta beste %40 Udalak. Nolanahi ere, Principe de Viana erakundeak proiektua aldatu egin behar dela esan die bultzatzaileei, Ziudadelako aztarnak berreskuratzeko. Orain dela 12 urte, Manuel Sagastume, Luis Tabuenca eta Manolo Blasco arkitektoek egindako proiektuari Principe de Vianak eskutako aldaketak egitea hilabete eta erdiko lana izanen dela uste dute proiektuaren egileek.

Autobus geltoki berria egite-

### PRINCIPE DE VIANA

## Proiektuan aldaketak egin beharko dira

Proiektuaren inguruan Principe de Viana erakundeak egindako ebazpenak aldaketak behar dituela esan du. Juan Ramon Corpas erakunde buruak esan du geltoki berriak gizarteari ez ezik, ondareari ere mesede egin diezaikeela. Hala, Corpasen irudiko, Ziudadelako aztarnak berreskuratzeko baliagarria izan daiteke.

Geltokiaren inguruan egin lagin arkeologikoetan, hainbat aztarna azaldu dira. Corpasek esan du egokia litzatekeela Ziudadelaren lurpean dauden hainbat zati berreskuratzeko: Revellina, lubakia, kontrako malda eta estalita bidea, besteak beste. Txostenak dio iragan mendean kuartelak eraikitze bota zituztela zati horiek, eta berreskuratzeko «beharrezkoa eta egokia» litzatekeela.

Gainera, aztarna horiek berreskuratzeko ez dela zaila izanen dio, dokumentazio ugari dagoelako eta Ziudadelaren oina geometrikoa delako, besteak beste.

ko ardura lehiaketa bidez emanen dute. Geltokiaren ondoan, merkataritza zentro bat eta 800 plaza izanen dituen azpialdeko aparkalekua ere eraikiko dituzte.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

### IKASTETXE PUBLIKOETAN ORDEZKAPENAK EGITEKO IZANGAIEN ZERRENDEN IREKIALDIA

Araudi ezargarria: 1995eko irailaren 13ko Erabakia, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailako Langilearen Kudeaketa zuzendariarena (1995-10-05eko EHAA).

**BIZKAIKO LH:** IE: HE2, HE1 edo baliokidea:

• **Eraikuntza zibila:** (derrigorrezkoa: arkitekto edo aparejadore agiria).

**OHARRA:** hizkuntz eskakizuna egiaztatzen ez dutenek ere izena eman ahal izango dute; horrelakoei ordezkogaien zerrendan sartzeko deituko zaie baldin eta hizkuntz eskakizuna den ordezkogairik ez balego.

**Eskabideak aurkezteko epea:** Zerrendak zabalik egongo dira 2002ko azaroaren 4tik 8ra (biak barne).

**Eskabideak aurkezteko tokia:** Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza, Gran Via, 85. Bilbao. Telefonoa: 944 031 094.